

## **UNIBERTSITATEA-ENPRESA-GIZARTEA PROIEKTUAK 2020**

### **OHAR GARRANTZITSUA: BERRIRO HASIKO DA PROZEDURA IZAPIDETZEN. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EZOHICO NEURRIAK**

Berriro hasiko dira prozedurak izapidetzen eta administrazio-epeak zenbatzen. Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskabideen behin-behineko zerrenda argitaratu da.

Maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuaren 9. artikulua, alarma-egoera luzatzen duenak, ondoriorik gabe utzi ditu, 2020ko ekainaren 1etik, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian ezarritako epemugak etetea eta administrazio-epeak etetea (COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko du dekreto horrek).

Ondorioz, bidezkoa da laguntzak emateko prozedura ohiko moduan izapidetzen jarraitzea, onartutako eta baztertutako eskabideen behin-behineko zerrenda publiko eginez eta 10 eguneko epea irekiz horiek zuzentzeko.

#### **Dokumentazioaren aurkezpena.**

COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoerak eragindako ezohiko egoera dela-eta, ahal dela, UPV/EHUko Egoitza Elektronikoa dagoen **Erregistro Elektronikoa** erabiliko da. Horretarako, Ikerketaren arloko Errektoreordetza aukeratuko da hartzaile gisa, eta eskatutako dokumentazio gehigarria erantsiko da (<https://egoitza.ehu.eus/egoitza/erregistro?check=ok&langId=eu>).

Ez da gomendatzen UPV/EHUko erregistro-bulegoak erabiltzea, ez eta posta-bulegoak ere, dokumentazioa paperean aurkezteko. Hala ere, erregistro-bulegoak erabiliz gero, kontuan izan behar da 2020ko maiatzaren 26tik aurrera alde zuzenetik hitzordua eskatuta baino ez dutela erantzun, 09:00etatik 13:00etara (<https://www.ehu.eus/documents/2989329/0/resoluci%C3%B3n-apertura-registro/ce79f8fc-f879-dc8e-3aa9-582d54cbc393>).

Leioa, 2020ko ekainaren 1a.

IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA  
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA

